

# EKONOMIA TA LAN MUNDUA

## (2013-03-11)

Bermeoko Kultur Etxean

### BILERAREN ERREALITATEA

**PARTAIDE KOPURUA:** 11 pertsona (Idurre Bideguren, Javier Kareaga, Imanol Rodriguez, Ekaitz Goienetxea, Bego Gangoiti, Gaizka Ormaza, Gaizka Aurrekoetxea, Bernardo Suarez, Iruñe Ormaetxea, Aritz Arrizabalaga eta Maitane Basterretxea)

#### UDALETIK

- Turismo zinegotzia eta alkatea
- Turismo teknikaria
- Ingurumen teknikaria

**DINAMIZATZAILEA**  
**IDAZKARIA**  
**BOZERAMAILEAK / ORDEZKARITZA**

**Maitane**  
**Bego Gangoiti**  
**0**

**BILERA ORDUA:**  
**LEKUA**

**19:00 – 21:40**  
**KULTUR ETXEAN**

### EZTABAIDATUTAKO GAIAK

#### Gai Zerrenda:

1. Aurreko akta onartu
2. Turismoa gaia: Amaiera eta Nora/nola bideratu
3. Turismo gaiaren balorazioa
4. Hurrengo gaia aukeratu
5. Bizkaibus

**1.- Aurreko akta** ontzat ematen da

**2.- Turismo gaia: Amaiera eta Nora/nola bideratu**

*Idurre:* Zergatik hasi gara gai honetan lanean? Turismoa ekonomia delako. Turismoak sortzen du:

- Aberastasuna eta garapena
- Bermeon gainera aukerak daukagu turismoa garatzeko: Bermeoko baliabideak: natura, gastronomia, kultura... egitekoa: gure baliabideak ezagutu, zaindu, brilloa atera eta erakutsi
- Turismoarekin tokiko biztanleak dira onuradun nagusienak.

Baina, ze turismo eredu nahi dugu?

- Tradizioa eta identitatea duena oinarri
- Masifikazio bakoa
- Jasangarria dena bere garapenean

Jakiteko zer nahi dugun diagnostiko bat egin dugu, non indarguneak eta ahulguneak azaltzen baitira.

Zein da landu dugun dokumentuaren helburua?

- Denon artean estrategia partekatu
- Lan hau partekatu udaleko batzordean eta udaleko langileekin
- Sektorearekin partekatu, ez bakarrik ordezkariekin baizik eta sektore guztiarekin
- Herriratu
- Eragile eta erakunde ezberdinekin berba egin

*G. Aurrekoetxea:* Planteamendua oso ona dela, baina edertze planarekin bat dator? Eta eskualde mailan ere azaldu behar da eta beste erakunde batzuei ere.

*Irune:* Gauza asko ezin izango dira bideratu beste erakunde batzuekin, baina guk herri mailan bai bultzatu ahal ditugu

*Aritz:* Edertze plana dokumentuaren kudeaketa taulan agertzen da.

*G. Ormaza:* Beti bezala agertzen da esaten dokumentu hau herriak bereganatu behar duela. Eta era berean planaren epeak finkatu behar direla.

*Irune:* Lehentasunak jarri behar dira eta gero epeak ipini

*Imanol:* Batzordean konpartitu eta sektorearekin adostu jadanik egin ahal den lana da.

*G. Aurrekoetxea:* Baina zelan adosten da herrian?

*G. Ormaza:* proiektua azaldu eta saldu geure herriari: sektorea, eskolak..

*Imanol:* Edertze Plana non dago ikusgai?

*Bego:* Dokumentuak pisu handia dauka e-mail bidez bidaltzeko, baina nahi izanez gero pen-drive baten bidez batzeko prest dagoela turismo bulegoan.

*Ekaitz:* Orain aurkezten den dokumentua laburtzeko eta bateratzeko ahalegin bat egin da, eta aurkezpena egiten du. Mezua da: **Bermeo itsasoari lotutako eskaintza konpletoena duen herria da.** Eta eskaintza horrek hiru ezaugarri nagusi ditu

- Itsas paisaia
- Arrantza ondarea
- Jaia eta gastronomia

*Aritz:* Dokumentua azaltzen du (atxikita doa akta honi), eta dokumentuari dagokion kudeaketa eta komunikazioa, eta baita ere aztertutakoa dokumentu honetara heltzeko

*Imanol:* Itsasoa denez ardatz nagusia dokumentuan, hausnarketa moduan galdetzen du ia itsasoa nondik ikusten den. Menditik. Baina mendia ez dela agertzen, eta ikuspegi onenatarikoa dela dio. Historia aldetik kontuan izatea itsas gudariak, Sollubeko trintxerak... proposatzen ditu.

*G. Aurrekoetxea:* guda zibileko kontuak ez daudela ondare moduan zainduta azaltzen du

*Aritz:* Herri bakoitzak babestu ahal du herri mailako planifikazioan, baina babes oso murriztua da

*Idurre:* Sektorearekin konpartitu dionean, kontserba lantegiak ere barne daude

*Aritz:* sektore guztiak egon beharko lirateke, ze ez da turismo proiektio bat, baizik eta herri proiektioa.

*G. Ormaza:* Antzinako salazoiak itsasontziz joaten zen Italiara, eta itsasontzi horiek ekartzen zituzten FIATEko piezak SEATentzako. Esportazio mailan salazoiaren kupela zen garrantzitsua

*Aritz:* Ardoa eta Arrainaren ibilbidea be kontuan izan behar da

*Bego:* Gauza da turismotik eta udaletik ezin dela dena garatu, eta herrian zoritxarrez ez dago talderik herriko historiaren ikerketan lan egiteko eta ezagutza zabaltzeko.

*Aritz:* Ikerketa bat dago nor edo nork eginda kontserba lantegietako jabe zaharren artean

*Ekaitz:* Arrain Azokako ekintzak asteburu baten bakarrik batzen dira

*Aritz:* Mundakako Surf on line dago eta denboran luzatzen da, eta Arrain azokako pintxo lehiaketa ere ahal izango litzateke beste asteburu baten egin eta horrela beste asteburu bat betetzen da...

*Bego:* Batzuetan beharrezkoa da asteburu baten ezagutaraztea dauden aukerak, eta gero taldeek bideratu gustukoak diren ekimenak. Proposamen moduan: Kulturako partaidetza taldean aztertu eta ikusi nola bideratu taldeak herriko kultura aztertzeke eta plazaratzeko.

*Imanol:* Jaiak parrandari lotuta doaz beti. Historia eta egungo errealitatea ez daude lotuta

*Irune:* Beste leku batzuetan hobeto antolatuta daude

*Aritz:* Jaia eta dibulgazioa hobeto banandu beharko lirateke. Udalak kulturatik ez du patrimonioa bideratzen, dinamizazio egiten du.

*Idurre:* Galerna zela eta hitzaldietan eta jende asko batu zen eta elkar lan bat egoan.

*Bernado:* Ekimen horrek izandako zabalkuntza kontuan izanda, hitzaldietan beti betikoak egon ziren

*Ekaitz:* aurton San Juaneko birjinaren urperaketaren 50. Urteurrena da

*Imanol:* Frontoiko mendeurrena ere bada.

*G. Ormaza:* marka bat egon beharko litzateke

*G. Aurrekoetxea:* lelo bat baita

*Aritz:* Marka eta leloa behar bada beranduagorako utzi beharko lirateke

*Maitane:* Noiz azalduko da sektoreari.

*Idurre:* Aste Santua baino lehenago udaleko batzordean azalduko da. Sektoreari Aste Santu ostean, baina horretarako lan talde honetako ordezkari bat egon beharko litzateke uste du

*G. Aurrekoetxea:* Begok sektorearekin kontaktuan jarri ondoren eguna eta ordua jartzea eskatu du. Era berean Begori, turismo teknikari bezala, zer deritzon egindako lanak galdetzen du.

*Bego:* lana ondo dago, lehenengo aldiz idatzita zer edo zer daukagu. Orain eskualdeko plan estrategikoak sartu behar dira bertan agertzen diren ekimenak eta beste programa batzuei egokitu.

### **3.- Turismo gaiaren balorazioa**

- ✓ Batzar kopurua nahiko ondo, kontuan izanda udako parentesia
- ✓ Talde konprometitua, behar bada sektorearen falta
- ✓ Gaiak hobetu definitu beharra eta gaiak zehatzago aurkeztu
- ✓ Ikuspuntu ezkorra, baina hobekuntzarako kritika bezala hartu beharrezkoa
- ✓ Komunikazio lana hobetu beharra, arteko jendea erakartzeko batzarretara.

*Imanol:* denbora gutxi gaiak garatzeko batzarretan

*G.Aurrekoetxea:* batzarrean jorratuko diren gaiak aurretiaz jakitea beharrezkoa

### **4.- Hurrengo gaia**

*Irune:* kontsumo taldeak direla eta, aurretiaz proposatutako gaia, oraindik landuago egon behar da gaia, besteak beste EHNErekin egon. Ekoizleak, herritarrak eta merkatari txikiak izan behar dira kontuan. Epe laburren ez da gai bat ikusten duena lantzeko.

*Maitane:* Talde hau hirigintzan integratzea ere proposatu da. Zarragoitxi, San Miguel eta San Martin oraindik berraztertzeke daude

*Ormaza:* Bermeok badauka zer erakutsi. Urdaibaiko atera gara: lan munduan zer sortu behar da ate bihurtzeko. Beste udal batzuetan badaude taldeak langabezian daudenei zer edo zer eskaintzeko. Adibidez, Udalak badauka lurrik eskaintzeko? Bermeoko kasuan hori ez da posible. Turismoari lotuta, San Juanen harrera gunea eta bertan 2 lanpostu sortu. Aholkularitza jabetxeei: janzkera, eskaintza...

*Maitane:* San Martinen partzela bat poligonotik gertu, etxebizitzatetik gertu... baina gaur egin egoera ekonomikoa kontuan izanda nola bideratu partzela hori (inbertsiorako espazioa, ingurumenerako gunea...)

*Aritz:* Zarragoitxin indusketak eta aukera ekonomikoa ere izan ahal da. Garapen ekonomikoa nondik joan nahi den adostu behar da eta plangintza urbanistikoa horri egokitu, eta ez alderantziz. Eta horregatik komenigarritzat jotzen du batzar horietan egotea.

*Maitane:* Zarragoitxi, San Martin eta San Miguel-ek bilera kopuru jakin bat izango dute.

*G. Ormaza:* Herria mugatuta dago espazioz. Eztabaidatu behar da enpresak Bermeon eta eskualde mailan nola antolatu behar diren lurrak.

*Idurre:* Hiru gunek horiek onartu barik utzi ziren legalki aukera zegoelako. Zarragoitxin etxe asko egiteko aukera zegoen, baina hori egin ezker, herriko berde gunek bat desagertzen da, San Martinen aukera ikusten zen enpresa txikientzako bideratzea lokal batzuek, San Miguelek zer egin ez zegoen argi. Hiru gunek horiek berraztertuko dira

*Ekaitz:* Auzo lana bere ere gai bat da, eta bere aplikazioa ikusi egiten da herritarren aldetik

*Imanol:* Hiru gunek aztertzea interesgarri ikusten du

*Bernardo:* Kontsumo taldea hobeto ikusten du lantzeko

*Maitane:* Turismo gai hau batzordeetara ere eroan behar da, eta hirigintzako hiru gunekin batera datoz batzarrak, eta jendea ez kargatzeko, kontsumo taldeen gaia garatu ahal da guztiz bukatzen denean beste gai bien ziklo osoa.

*G. Ormaza:* Debatea sortu ahal da enpresak ipiniz Bermeon legea aldatuz, edo eskualdean bateratu enpresak, edo tunelaren ostean zelako Bermeo nahi dugun. Aurreikusi behar da nora joan nahi dugun, ze gero berandu da.

*Idurre:* asmoa dago eskualde mailan garatzeko poligonoak eta 15 urteko ikuspuntua izango du. Enplegu plana ere badago eztabaidatuta baina gai oso konplikatu da orokortasun baten dagoelako eta ez da gai konkretua.

*Aritz:* ondo legoke enplegu plana aurkeztea (beste guztiak ados daude)

## **5.- Bizkaibus**

Maitanek banatu ditu udaletik bideratutako proposamena partaidetzako dokumentua oinarritzat hartutakoa eta BFAtik jasotako erantzuna

*Bego:* lehen gaia zen eta eskari ondo oinarritu barik zegoen

*G. Ormaza:* Galdakaoko zerbitzua berriro aztertu beharko litzateke eta berriko eskaria egin.

Batzarra bukatu da 21:40

## Bermeo. Turismo iraunkorrera.

Bermeok aukera handiak dauzka turismoari etekina ateratzeko. Aberastasun handiagoa sortzeko. Garapen sozialerako. Berba batean, Bermeoko herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Zelako turismo eredua? Herriaren tradizioa eta ingurumena errespetatuko duena, nortasunari eta paisajeari balio handiagoa emango dien turismo mota. Gure baliabideen karga ahalmena kontuan edukiko duena. Aritzatxuk bere tamaina dauka; dauzkagu dauzkagun aparkalekuak. Turismo masifikatua barik, urte osoko jarduera ekonomikoari eta herriko kaleei bizitasuna emango dien turismoa da Bermeori komeni zaiona.

Bermeon badaukagu zer eskaini: paisajea, historia, gastronomia... Hasteko, daukagunaz konturatu behar dugu, herriak dituen altxorak hobeto ezagutu, zaindu, brilloa atera eta harro erakusteko moduan ipintzea falta zaigu.

Bermeon hutsuneak ere baditugu, badakigu. Badaukagu zer landu eskaintza turistikoa hobetzeko. Azken hilabeteetan egindako batzarretan hainbat kezka, ideia eta proposamen agertu dira. Horiei erantzunak aurkitzeko, helburua denok konpartitzea da garrantzitsua.

Udalaren sail guztiek, ekonomia sektore guztiek, herriko elkarte guztiek, herritar guztiok argi badaukagu helburua, errazagoa izango da. Bakoitzak bere bidea egin beharrean denok horizonte berberari begira arraun egiteko. Elkarlanean, etekina denok ateratzeko. Onurak herri osoarentzako izan daitezten.

Hau ez da bakarrik Udalaren plan bat, ondorioak ez ditu jasango Turismo sailak bakarrik. Hemen laburbiltzen duguna aplikatu ahal zaie kulturari, jaiari, hirigintzari, zerbitzuei, gizarteari. Bermeoren markaz berba egiten ari gara, transmitituko ditugun balioez, izan gura dugunaz. Marka hori indartzea turismorako onuragarria den era berean, turismoa indartzeko pausuek ere marka hori lantzea dakar.

Sarritan herritarrak izaten dira Turismo Bulegoaren funtzioa betetzen dutenak, kalean galdetzen dietenean. Horregatik da garrantzitsua helburua denok konpartitzea. Herritar guztiek istorio berbera kontatzeko bisitariari. Denok mezu berbera transmititzeko. Eta zein da transmititu behar dugun mezua?

Hau: Bermeo da itsasoari lotutako eskaintza konpletoena duen herria

Zergatik? Hiru arrazoi handi hauengatik:

- Bizkaiko itsas-paisaje ederrena duelako:  
Euskal kostaldeko altxorra dira **Gaztelugatxe** eta **Izaro**. Paraje ikusgarriak ditugu, Ingurumen babesarekin gainera: Urdaibai Biosfera erreserba, Biotopoa, Natura 2000...
- Bizkaiko arrantza-patrimonio inportanteena:  
Sorreratik **Itsas Herri** garrantzitsua da Bermeo. Ondare eta historia aberatsa dugu eta, garrantzitsuena, jarduerak bizirik dirau: arrantza-ontziak, kontserba eta beste industriak, ontzigintza...
- Itsasoari lotutako jai eta gastronomia aukera zabala:  
**Kresaldunak** dira gure kale giroa eta gastronomia: arrain errezetak eta kontserbak, poteoa, jai egun handiak...

Horiek dira Bermeok dauzkan hiru zutabe nagusiak, gure eskaintza hobetzeko abiapuntua. Oinarri horien gainean lan egiten hasteko, hainbat lehentasun identifikatu ditugu sektoreetako, herritarren batzarretako, aholkularitza profesionaletako eta turismo bulegoko iritziak eta datuak batuta.

Hurrengo orrialdeko taulan laburbildu ditugu.

## Laburpen taula.

Bermeoko turismoaren oinarriak dira: paisaia, patrimonioa eta giroa. Taula hau ekarpenetara zabalik dago. Proposamenetan sakontzeko, oinarri-zutabe bakoitzagaz taula konpletoagoa osatuko dugu beste dokumentu batzuetan. Beheko taulak balio dezala ikuspegi orokorra edukitzeko, orain arte sarri agertu diren ondorioen laburpen modura.

	Zer daukagu	Zer hobetu	Zelan (ideiak)
<b>Paisaia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Gaztelugatxe</li> <li>· Matxitxako</li> <li>· Izaro</li> <li>· Tala, Tonpoia</li> <li>· Alde zaharra</li> <li>· Portua, Rompeolasa</li> <li>· Itsasoa</li> <li>· Urdaibairako atea</li> <li>· Sollube, itsasora begira dauden landa eremuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bermeogaz duen lotura sinbolikoa indartu, eta hara doazenak Bermeora erakarri.</li> <li>· Paisaiaren edertasunari balioa eman, brilloa atera, erakusgarri ipini.</li> <li>· Landa eremutik itsasora dauden ikuspegiei balioa eman.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Webgunea posizionatu; harrera infogunea bertan; errepidea hobetu; itsas bisitak San Juanera; belaontzi estropada; sanjuanetako jaiak erabili; Matxitxakotik Gaztelugatxerako ibilbide naturala txukundu.</li> <li>· Paisajearen postalak eta argazki ekimenak, kalitatezkoak, bultzatu.</li> </ul>
<b>Patri-monioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Historia</li> <li>· Museoak: Arrantzaleen Museoa, Aita Guria.</li> <li>· Monumentuak eta artelanak.</li> <li>· Industria, lehen eta orain.</li> <li>· Itsas-ondarea: ofizioak, Ortube, kofradiak, Ormaza...</li> <li>· Euskara</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Hirigintza. Inguru urbanoa edertu.</li> <li>· Ibilbide tematikoak prestatu.</li> <li>· Bermistorian, komunikatzen asmatu.</li> <li>· Herritarren ezagutza, kontatzeko ahalmena indartu.</li> <li>· Monumentuak balioan jarri.</li> <li>· Itsas ofizioak jendeari ezagutarazi.</li> <li>· Itsas sektorerako erreferentzia bihurtu.</li> <li>· Aztertu, zaindu, berpiztu erabilera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Edertze planeko ekintzen artean lehentasunak markatu.</li> <li>· Itsas-mundua lehorrean; balezaleen ibilbidea; hiru pausuen ibilbidea.</li> <li>· Hitzaldietako edukiak kalera atera, jaia edukiagaz bete.</li> <li>· Herritarrentzako oferta bereziak museoetara, edukietara.</li> <li>· Itsas-gudarien eguna.</li> <li>· San Juan portaleko eskulturak biratu, argazkia kontuan hartuta.</li> <li>· Nestor Basterretxearen ibilbidea landu.</li> <li>· Arrain kanpaina bakoitzaren ostean, arraina zelan prestatu-kontserbatu erakusketa-lehiak.</li> <li>· Kontserba enpresetara, kofradira, Ortobera... bisitak.</li> <li>· Arrain azoka erreferentzia bihurtu, hitzaldi espeliaziatuak.</li> <li>· Ahozko kanta, istorioak, kondairak. Lekuen izenak, ezizenen zerrenda luzea.</li> </ul>
<b>Giroa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Turismo aktiboa.</li> <li>· Alojamendua.</li> <li>· Kontserba produktuak</li> <li>· Poteorako tabernak</li> <li>· Jatetxeak</li> <li>· Jai herrikoi tradizonalak</li> <li>· Hainbat kultur areto; inguruko handiena: Kafe Antzokia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Elkarlana eta komunikazioa landu sektoreko protagonisten artean.</li> <li>· Oferta ezagutarazi, Bermeoko markara egokitzen joan.</li> <li>· Bertoko produktuak promozionatu.</li> <li>· Slow food filosofia</li> <li>· Jai Batzordean ikuspegi orokorreraz landu ostalari, elkarte eta norbanakoen artean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 'Delicatessen' bezalako ekimenak, otzarak eta souvenir gastronomikoak.</li> <li>· Jatetxeen gida</li> <li>· Pintxo-potea arrainagaz lotu.</li> <li>· Madalenak eta Sanjuanak berreskuratu. Xixiliren sinboloa indartu.</li> <li>· Kontzertu jaialdi handia herri osoan: Antzokia, Nestor, Ateneoa, Irish, Kapilla.</li> </ul>

Hemendik aurrera ere sortuko dira ideia eta proposamen berriak. Hiru zutabeetako batekin lotzeko kapaz bagara, helburu nagusiagaz koherenteak izango gara. Zenbat eta koherentzia handiagoa helburuagaz, orduan eta etekin kolektibo handiagoa emateko aukera egindako ahalegin bakoitzari.

Noski, hiru zutabeen artean oso harreman estua dago, eta ekintza batzuk hibridoak ere izan ahal dira, bi edo hiru zutabetan aldabatera landu beharrekoak. Adibidez, euskarari dagokionez, arrantza zaharren ezagutzak eta berbakera aztertu eta zaindu beharreko patrimonioa da. Ezinbesteko informazioa da arrantzari buruzko azalpenak artez emateko eta gainera, jasotako berba jokoak-eta zabaltzen badira, gure nortasunaren sinbolo nagusietakoa osasuntsu eta fresko mantentzen jarraituko dugu.

### Kudeaketa.

Kudeaketa eredu integratzailea eta eraginkorra:

Udal sailean arteko koordinazioa, eragile publiko eta pribatuen arteko komunikazioa eta elkarlana, eta kalitatearen aldeko apustua espazioetan eta zerbitzuetan.

(hau sakonago azaltzeko dago)

Adibidez, orain arteko lan mahaia (turismokoa, kontserberena...) azaldu eta garrantzia eman.

### Komunikazioa.

Komunikazio estrategia (zelan landuko da?)

Herrira eta kanpora begira

Bermeotarren artean historia/ondare eta bizimodu tradizionalak ezagutza eta estimuaren sustapena (herrira begira daukagun komunikazio hutsune handienetakoa)

	Zer daukagu	Zer hobetu	Zelan (ideiak)
<b>Gestioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Turismo mahaia</li> <li>- Kontserba mahaia</li> <li>- Arrain azoka elkarte</li> <li>- Turismo bulegoa</li> <li>- Kalitate programak</li> <li>- Edertze plana</li> <li>- Partehartze prozesuak</li> <li>- Eskualdeko plan estrategikoa</li> <li>- Euskal kostaldeko plana</li> <li>...</li> </ul>	...	...
<b>Komunikazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalaren web orria.</li> <li>- Udalaren Facebook orria</li> <li>- Eskuorri orokorrak</li> <li>- Aita Gurian eskuorria</li> <li>- Bermistorian</li> <li>- ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Estrategia eta helburuak konpartitu; planifikatu.</li> <li>- Dibulgazioa herritarrei, orohar.</li> <li>- Sektore eta sail bakoitzaren ezaugarri/beharretara egokitu.</li> <li>- Posizionamendua bilatzaileetan.</li> <li>- Harreman publikoetarako ikuspegian sakondu.</li> <li>- Historiari buruzko dibulgazioa kalera atera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Doako bisitak museoetara, adb.</li> <li>- Turismoari begirako web orri autonomoa?</li> <li>- Facebook orri autonomoa?</li> <li>...</li> </ul>

**Aztertutakoa.**

Aurkeztutako testua azken hilabeteetan denon artean egindako lan handiaren sintesia da. Ondorio hauetara ailegatzeko, honako hauek guztiak eduki dira kontuan:

- Sektore-mahaiekin egindako batzarrak
- Bermeon Erabaki, herritarren parte-hartze batzarrak, Ekonomia eta Kultura lan-taldeetan
- Edertze Plana, enpresa bati enkargatutako txosten profesionala udal beharginen parte hartzeaz.
- Turismo bulegoko datuak eta Bermeora datozen bisitarien joerak
- Interneten bisitariak bilatzen dutenari buruzko azterketa
- Eskualdeko plan estrategikoa
- Euskal kostaldeko plana



## Bermeo. Turismo iraunkorrera.

Bermeok aukera handiak dauzka turismoari etekina ateratzeko. Herriaren tradizioa eta ingurumena errespetatu eta balio handiagoa emango dion turismo mota. Turismo masifikatua barik, urte osoko jarduera ekonomikoari eta herriko kaleei bizitasuna emango diena.

Bermeon badaukagu zer eskaini: paisajea, historia, gastronomia... Hasteko, daukagunaz konturatu behar dugu, herriak dituen altxorak hobeto ezagutu, zaindu, brilloa atera eta harro erakusteko moduan ipintzea falta zaigu.

Bermeon hutsuneak ere baditugu, badakigu. Badaukagu zer landu eskaintza turistikoa hobetzeko. Azken hilabeteetan egindako batzarretan hainbat kezka, ideia eta proposamen agertu dira.

Helburu nagusia zein den konpartitzea da garrantzitsua. Turismoari etekina denok ateratzeko, helburu berberaren alde elkarlanean aritzea da inportantea. Onurak herri osoarentzako izan daitezten.

Udalaren sail guztiak, ekonomia sektore guztiak, herriko elkarte guztiak, herritar guztiok argi badaukagu helburua, errazagoa izango da. Bakoitzak bere bidea egin behar denok horizonte berberari begira arraun egiteko.

Denok mezu berbera transmititzeko. Herritar guztiak istorio berbera kontatzeko bisitariari. Eta zein da transmititu behar dugun mezua?

Hau: Bermeo da itsasoari lotutako eskaintza konpletoena duen herria

Zergatik? Hiru arrazoi handi hauengatik:

- Bizkaiko itsas-paisaje ederrena duelako:  
Euskal kostaldeko altxorra dira **Gatzelugatxe** eta **Izaro**. Paraje ikusgarriak ditugu, Ingurumen babesarekin gainera: Urdaibai Biosfera erreserba, Biotopoa, Natura 2000...
- Bizkaiko arrantza-patrimonio inportanteena:  
Sorreratik **Itsas Herri** garrantzitsua da Bermeo. Ondare eta historia aberatsa dugu eta, garrantzitsuena, jarduerak bizirik dirau: arrantza-ontziak, kontserba eta beste industriak, ontzigintza...
- Itsasoari lotutako jai eta gastronomia aukera zabala:  
**Kresaldunak** dira gure kale giroa eta gastronomia: arrain errezetak eta kontserbak, poteoa, jai egun handiak...

Horiek dira Bermeok dauzkan hiru zutabe nagusiak, gure eskaintza hobetzeko abiapuntua. Oinarri horien gainean lan egiten hasteko, hainbat lehentasun identifikatu ditugu sektoreetako, herritarren batzarretako, aholkularitza profesionaletako eta turismo bulegoko iritziak eta datuak batuta.

Hurrengo orrialdeko taulan laburbildu ditugu.

## Laburpen taula.

Bermeoko turismoaren oinarriak dira: paisaia, patrimonia eta giroa. Taula honetan sakontzeko, oinarri-zutabe bakoitzagaz taula konpletoagoa osatuko dugu beste dokumentu batzuetan. Beheko taulak balio dezala ikuspegi orokorra edukitzeko, puntu garrantzitsuenen laburpen modura.

	Zer daukagu	Zer hobetu	Hobetzeko ideiak
<b>Paisaia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Gaztelugatxe</li> <li>·Matxitxako</li> <li>·Izaro</li> <li>·Tala, Tonpoia</li> <li>·Alde zaharra</li> <li>·Portua, Rompeolasa</li> <li>·Itsasoa</li> <li>·Urdaibairako atea</li> <li>·Sollube, itsasora begira dauden landa eremuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Bermeogaz duen lotura sinbolikoa indartu, eta hara doazenak Bermeora erakarri.</li> <li>·Paisaiaren edertasunari balioa eman, brilloa atera, erakusgarri ipini.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Webgunea posizionatu; harrera infogunea bertan; errepidea hobetu; itsas bisitak San Juanera; belaontzi estropada; sanjuanetako jaiak erabili; Matxitxakotik Gaztelugatxerako ibilbide naturala txukundu.</li> <li>·Paisajearen postalak eta argazki ekimenak, kalitatezkoak, bultzatu.</li> </ul>
<b>Patri-monioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Historia</li> <li>·Museoak: Aita Guria, Arrantzaleena.</li> <li>·Monumentuak eta artelanak.</li> <li>·Industria, lehen eta orain.</li> <li>·Itsas-ondarea: ofizioak, Ortube, kofradiak, Ormaza...</li> <li>· Euskara</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Ibilbide tematikoak.</li> <li>· Bermistorian, komunikatzen asmatu.</li> <li>·Herritarren ezagutza, kontatzeko ahalmena indartu.</li> <li>·Monumentuak balioan jarri.</li> <li>·Hirigintza. Inguru urbanoa edertu.</li> <li>·Itsas ofizioak jendeari ezagutarazi.</li> <li>·Itsas sektorerako erreferentzia bihurtu.</li> <li>· Aztertu, zaindu, berpiztu erabilera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· itsas-mundua lehorrean; balezaleen ibilbidea,</li> <li>·Itsas-gudarien eguna.</li> <li>·Hitzaldietako edukiak kalera atera.</li> <li>· Herritarrei oferta bereziak, transmisioa zabaltzeko.</li> <li>· San Juan portaleko eskulturak biratu, argazkia kontuan hartuta.</li> <li>·Arrain kanpaina bakoitzaren ostean, arraina zelan prestatu-kontserbatu erakusketa-lehiak.</li> <li>·Nestor Basterretxearen ibilbidea landu.</li> <li>·Edertze planeko ekintzen artean lehentasunak markatu.</li> <li>· Kontserba enpresetara, kofradira, Ortubera... bisitak.</li> <li>·Arrain azoka profesionalizatu, hitzaldi espeliaziatuak.</li> <li>· Ahozko kantal, istorioak, kondairak. Lekuen izenak, ezizenen zerrrenda luzea.</li> </ul>
<b>Giroa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Turismo aktiboa.</li> <li>·Alojamendua.</li> <li>·Jai herrikoi tradizionalak</li> <li>·Kontserba produktuak</li> <li>·Poteorako tabernak</li> <li>·Jatetxeak</li> <li>·Hainbat kultur areto; inguruko handiena: Kafe Antzokia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Elkarlana eta komunikazioa landu.</li> <li>· ...</li> <li>·Jai Batzordean ikuspegi orokorragaz landu ostalari, elkarte eta norbanakoen artean.</li> <li>·Ostalaritza+Kontserbera elkarlana, bertoko produktuak promozionatzeko.</li> <li>·Oferta ezagutarazi, Bermeoko markara egokitze pausuak aztertu.</li> <li>·Slow food filosofia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Xixiliren sinboloa indartu.</li> <li>· Madalenak eta Sanjuanak berreskuratu.</li> <li>·'Delicatessen' bezalako ekimenak, otzarak eta souvenir gastronomikoak.</li> <li>· Jatetxeen gida</li> <li>·Pintxo-potea arrainagaz lotu.</li> <li>·Kontzertu jaialdi handia herri osoan: Antzokia, Nestor, Ateneoa, Irish, Kapilla.</li> </ul>

Hemendik aurrera ere sortuko dira ideia eta proposamen berriak. Hiru zutabeetako batekin lotzeko kapaz bagara, helburu nagusiagaz koherenteak izango gara. Zenbat eta koherentzia handiagoa helburuagaz, orduan eta etekin kolektibo handiagoa emateko aukera egindako ahalegin bakoitzari.

Noski, hiru zutabeen artean oso harreman estua dago, eta ekintza batzuk hibridoak ere izan ahal dira, bi edo hiru zutabetan aldabatera landu beharrekoak. Adibidez, euskarari dagokionez, arrantzale zaharren ezagutzak eta berbakera aztertu eta zaindu beharreko patrimonioa da. Ezinbesteko informazioa da arrantzari buruzko azalpenak artez emateko eta gainera, jasotako berba jokoak-eta zabaltzen badira, gure nortasunaren sinbolo nagusietakoa osasuntsu eta fresko mantentzen jarraituko dugu.

## Kudeaketa.

Kudeaketa eredu integratzailea eta eraginkorra:

Udal sailean arteko koordinazioa, eragile publiko eta pribatuen arteko komunikazioa eta elkarlana, eta kalitatearen aldeko apustua espazioetan eta zerbitzuetan.

(hau sakonago azaltzeko dago)

Adibidez, orain arteko lan mahaia (turismokoa, kontserberena...) azaldu eta garrantzia eman.

## Komunikazioa.

Komunikazio estrategia (zelan landuko da?)

Herrira eta kanpora begira

Bermeotarren artean historia/ondare eta bizimodu tradizionalak ezagutza eta estimuaren sustapena (herrira begira daukagun komunikazio hutsune handienetakoa)

	Zer daukagu	Zer hobetu (lehentasunak)	Idea berriak
<b>Gestioa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Turismo mahaia</li><li>- Kontserba mahaia</li><li>- Arrain azoka elkarte</li><li>- Turismo bulegoa</li><li>- Kalitate programak</li><li>- Edertze plana</li><li>- Partehartze prozesuak</li><li>- Eskualdeko plan estrategikoa</li><li>- Euskal kostaldeko plana</li><li>...</li></ul>	...	...
<b>Komunikazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Udalaren web orria.</li><li>- Udalaren Facebook orria</li> <li>- Eskuorri orokorrak</li><li>- Aita Gurian eskuorria</li><li>- Bermistorian</li><li>- ...</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Estrategia eta helburuak konpartitu; planifikatu.</li><li>- Dibulgazioa herritarrei, orohar.</li> <li>- Sektore eta sail bakoitzaren ezaugarri/beharretara egokitu.</li> <li>- Posizionamendua bilatzaileetan.</li> <li>- Harreman publikoetarako ikuspegian sakondu.</li> <li>- Historiari buruzko dibulgazioa kalera atera.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Doako bisitak museoetara, adb.</li> <li>- Turismoari begirako web orri autonomoa?</li><li>- Facebook orri autonomoa?</li> <li>...</li></ul>

## Aztertutakoa.

Aurkeztutako testua azken hilabeteetan denon artean egindako lan handiaren sintesia da. Ondorio hauetara ailegatzeko, honako hauek guztiak eduki dira kontuan:

- Sektore-mahaiekin egindako batzarrak
- Bermeon Erabaki, herritarren parte-hartze batzarrak, Ekonomia eta Kultura lan-taldeetan
- Edertze Plana, enpresa bati enkargatutako txosten profesionala udal beharginen parte hartzeaz.
- Turismo bulegoko datuak eta Bermeora datozen bisitarien joerak
- Interneten bisitariak bilatzen dutenari buruzko azterketa
- Eskualdeko plan estrategikoa
- Euskal kostaldeko plana

GIROA/TRADIZIOAK

**KRESALDUN EGUNAK**

Zer daukagu	Zer hobetu (lehentasunak	Idea berriak
·Jai herrikoi tradizionalak	- Jai Batzordean ikuspegi orokorragaz landu ostalari, elkarte eta norbanakoen artean. - Madalenak eta Sanjuanak berreskuratu..	- Xixiliren sinboloa indartu. - PUBLICITY lez, Madalenara turistak Korporazioarekin zozketa bidez? Edo turismo-Blogariak?
·Kontserba produktuak	·Ostalaritza+Kontserbera elkarlana, bertoko produktuak promozionatzeko- “Hemen, Bermeoko kalitatezko produktuak” pegatina??	- 'Delicatessen' bezalako ekimenak, otzarak eta souvenir gastronomikoak. -
·Poteorako tabernak		- Pintxo-potea arrainagaz lotu. - Pintxo lehiaketa Arrain azokatik kanpo? - “Hemen, Bermeoko kalitatezko produktuak” pegatina??
·Jatetxeak	·Jatetxeen gida	- Aste gastronomikoa? Adb. Atun sasoian?
·Hainbat kultur areto; inguruko handiena: Kafe Antzokia		·Kontzertu jaialdi handia herri osoan: Antzokia, Nestor, Ateneoa, Irish, Kapilla. - Agenda bateratua??
- Arrain azoka		- Pintxo lehiaketa Arrain azokatik kanpo? Beste “egun handi” bilakatzeko, esaterako. Arrain-Pintxo asteburua Bermeen? - Arrain azoka Errezeta liburua (agian, on-line?) - Arrain azoka urte guztian Internet bidez? Eskaintza bera baina on-line?

ONDAREA, IDENTITATEA

**ITSASHERRIA**

Zer daukagu	Zer hobetu (lehentasunak)	Idea berriak
·Historia	·Ibilbide tematikoa: Antzinako Bizkaiaren portua; itsas-mundua lehorrean; balezaleen ibilbidea. ·Herritarrei ofertak, transmisioa zabaltzeko.	·Bermistorian, komunikatzen asmatu. Bermistorian “birpentsatu”???
Memoria hurbila (istorioak, ofizioak...)	- Memoria hurbila jaso (Badihardugu hitzarmena??) - Ibilbide tematikoa: Itsas-mundua lehorrean.	Ikastetxeekin programak Programa intergenerazionalak Herritarrentzako dibulgazioa-eskaintza: jardunaldi, bisitak, Argazki liburuak, Argitalpen arinak...
Aita Guria	- konponketa lanak, mastapalo berriak... - Ibilbide tematikoak: balezaleen ibilbidea. - Jolasa: “Ternuako altxorra”, ume eta familientzat.	- Bale hezurduarekin, zer? Tonpoira?
Arrantzale Museoa	-	- Herritarrak berriz erakarri, inplikazioa lortu - herriko eskaintzari lotu
Eskulturak eta artelanak	- San Juan portaleko eskulturak: Harresi kalekoa biratu, argazkia kontuan hartuta (portala atzean). - Ibilbide tematikoetan txertatu	- Batzokiko Ucelayren murala? - Eskultura berriak? Saregileak Lameran; neskatilak Askatasun bidean karroari bultzaka; Txo bat Baztarretik behera...
Kontserberak	Kontserba enpresetara bisitak.	
Euskara, ahozkoasuna	Aztertu, zaindu, berpiztu erabilera. Ahozko kanta, istorioak, kondairak. Lekuen izenak, ezizenen zerrenda luzea.	
- Ortube ontzia	- Ikuskatu eta konpondu - Ortubeko azken arrantzaleei elkarrizketak (Adb. Lekeitioko Playa de ondarzabal). Baita, ontzigileari ere.	- Bisitarako egokitu
- Ormaza eraikina	- Proiektu museografikoa aztertu?? -	- Bestelako erabilera aukerak aztertu??

- Kofradi Zaharra	- Inplikaturiko eragileekin/erabiltzaileekin bildu eta eraikinaren etorkizuna marraztu	- Erabilera plan bat??

PAISAIA

## GAZTELUGATXETIK IZARORA

Zer daukagu	Zer hobetu (lehentasunak	Idea berriak
Gaztelugatxe	·Lotura Bermeogaz: webgunea posizionatu; - Aisialdi eta harrera-info gunea bertan; - errepidea hobetzeko gestioak. ·	·Itsas bisitak San Juanera. Belaontzi estropada sanjuanetan. ·Paisajearen postalak eta argazki ekimenak, kalitatezkoak.
Matxitxako	- Begiralekuaren eraikuntza bultzatu - Gaztelugatxekin lotu	
Tala,		- Interpretazio panela? Historia, eguraldia... - Andra Mari elizaren haztarnak nabarmendu?
Tonpoia		- Bale hezurdura?
Alde zaharra	- Edertze Planean jasotako ekintzak	- Baztarren begiratokia
Portua, Rompeolasa		- Rompeolasean eskuhartze artistikoa?
Izaro		
Itsas urtekerak (enpresek eskainiak)		- Komunikazioa, promozioa hobetu? - Portu erabileren plangintza. - Diskurtsoak bateratu? - Paketeak sortu? Jatordu, beste bisitak...
Itsas ugaztunak ikusteko urtekerak.		- Eskaintza osagarria Bermeon bertan: ibilbide tematikoa, "Ternuako altxorra" jolasa...